

EDITORIALA

Jokin Apalategi, *Uztaro* aldizkariaren zuzendaria

Uztaro 58 bost artikuluk osatzen dute. Gai-zerrenda, edukietan aski desberdina izanik ere, kuriositate zientifikoa duen edozein irakurlerentzat erakargarritasunez betea da. Lan gehienak hurbileko kezkei lotuak badira ere, ez da falta globalizazioaren jokabideak ametsetatik itzarturik, aho bete zientzia alor guztietan aipagai izatea lortu duen Txinaren suspertzea ekonomia-ikuspuntutik analizatzera datorren saiorik. Egokia deritzot ikertzailearen ikuspuntua hain urrun eramateari gure aldizkari-ritik ere. Azken hori aipatuz hasiko dugu gainera gure lanen aurkezpen zehatzagoa.

“Txina nazioarteko testuinguruan: oihalgintza eta jantzigintza” artikuluan Txinako ekonomiak azken hamarkadetan edukitako ibilera aztertzen da. Hasteko adieraz dezagun garapen-ekonomiaren alorrean lorpen harrigarriak izan baditu ere, gizarte-aurrerabidean motelago ageri dela. Nahitaez ez doazela batera bi alorrak, alegia. Bestalde, azken hiru hamarkadetan Mendebaldeko erakunde eta gobernuek babestutako merkatua zalantzan jartzen du Txinako ekonomia-eredu eskuhartzaileak. Aldi berean, Pazifiko inguruko herrialdeek ere kezka ikusten dituzte Txinaren industrializazio-prozesu hazkorra eta bertako manufaktura-gaien esportazio-ahalmena. Txinan sustatutako ekonomia-ereduak bere kontraesanak ditu: eskualde-desoreka, landa-eremuaren eta hiriaren arteko dikotomia, eredu hedakorraren ingurumen-kostuak, edo produkzio-eredua sostengatzen duten lanbaldintza kaskarrak, esaterako. Aipatzen ari garen artikulua bi atalez osatzen da: lehenean, 1980ko hamarkadatik aurrera Txinako ekonomiak izan dituen ezaugarri nagusiak lantzen dira, eta bigarrean, Txinako oihalgintzako eta jantzigintzako produktuen abantaila konpetitiboaren oinarriak aurkezten dira. Txinako ekonomiak batez besteko hazkunde tasa % 9 izan du, eta etorkizuneko aurreikuspenak oso baikorrak dira. 250 milioi pertonek pobrezia gainditu dute. Hala ere, desberdintasunak pertsonen errenta mailan gero eta nabariagoak egin dira. Kostaldea da garatzen ari dena. Atzerriko kapitalari Txinako lau gune mugatuetan bakarrik utzi diote sartzten: Gune Ekonomiko Berezietan (GEB), hain zuzen. Hong Kong eta Taiwaneko kapitalaren sarrera bilatzen zen eta, bestalde, kostaldeko gune horietan ondasunen garraiorako portuekin lotutako azpiegiturak zeuden. Lehenengo GEBek lortutako arrakastaren ondorioz bosgarren bat ireki zen Hainan uhartean. Bizi-itxaropenaren eta hezkuntzaren alorrean ere desberdintasunak nabarmenak dira. Generoari dagokionez ere ez bairik gabe ageri dira: analfabetismo-tasa gizonen artean % 6 denean, emakumezkoen artean % 16 baita eskualde berean. Diskriminazioak nekazaritza-guneak utzi dituzten 140 milioi pertsona kaltetzen ditu, eta datozen 20 urteetan 200 milioi nekazari gaztek jarraibide bera eramango omen du. Eta bereziki emakume gazteak portzentaje oso altua dira migrazio horietan. Txinako hazkunde hori industrian oinarritzen da. Mundu mailan Informazio eta Komunikazio Teknologietan lehen esportatzaile bilakatu da. Atzerriko Inbertsio Zuzenek (AIZ) 1979an eduki zuten hasiera. Mendebaldeko enpresek inberti zezaten baldintza desiragarriak sortu ziren. Hong Kong da AIZ horien jatorri nagusia. Txinarekin harreman familiar, sozial eta kultural hertsia ditu. Txinaren abantaila konpetitiboa oihalgintzan eta jantzigintzan sortu da. Horretarako muga-

sariak eta kuotak funtsezkoak izan dira. Oihalgintza, jantzigintza ez bezala, kapitalean intentsiboa da eta garapen-bideko herriek adar hori neurri apalagoan garatu ahal izan dute jantzigintza baino. Jantzigintzari dagokionez, berriz, produktu arruntak eta balio erantsi altukoak daude. Bestalde, azpimarra dezagun, oihalgintza-jantzigintzaren balio-katean banaketak egintzen duela. Merkatutik gertu egotea ere funtsezko da, eta clusterrak garrantzitsuak dira, hots, leku berean pilatzen diren oihalgile, jantzigile eta banatzaileen arteko elkarlana. Garapen-bideko herriak balio-katean behetik sartzen dira. Bigarren une batean pakete osoko produkziara pasa daitezke. Hirugarren urrats batean, garabideko herriek diseinu propioarekin produzi dezakete. Laugarrenik, marka propioekin produzi dezakete. Asiako Ekialdeko herriek arrakasta eduki dute baina industria-politika aktiboari esker. Oihalgintzak eta jantzigintzak 19 milioi txinatarrei ematen diete lana gaur egun. Txina jantzien alorrean munduko lehen esportatzailea eta oihalgintzan bigarrena bihurtu da. Faktore gehigarriak (produktibitate maila garaia, eskala-ekonomiak, azken produktuen kalitatea, hornitzaileen fidagarritasuna produktuak garaiz entregatzeko orduan, produktu osoa egiteko gaitasuna eta emateko denborak murrizten dituzten garraio-logistika eta azpiegiturak) dira Txinak dituen abantailak gainerako Hegoaldeko herrialdeekiko. Kuoten aroa itxi denean eta kuota gabeko testuinguru berrian sartu garenean, bi herrialde agertzen dira irabazle beste guztien gaineratik: Txina eta India.

“Euskal irrati eta telebistetako kazetarien soslai soziologikoa” artikuluan euskal kazetaritzako profesionalen buruzko hainbat ezaugarriekin egiten dugu topo. Artikulu honen egileak kazetaritzan igorleen arloa ikertzera datoz. Izan ere, kazetariaren jardunaren funtzio nagusia gizarteari berriak igortzea bada ere, sarritan jarduna bera albiste bihurtzen da. Gaur egun munduan hedabideei egozten zaien eraginak hedabide horietan lan egiten dutenei botere sinbolikoa ematen die eta horrekin batera erakargarritasun berezia jasotzen dute. Horretarako hedabideetan mezuak produzitzen eta banatzen dituztenen kokapen soziala identifikatzea erraza ez denez, nor den igorlea eta nortzuk diren mezu horiek produzitzen eta banatzen dituztenak baldere erantzuten hasi beharko ginatke. Kazetariak munduari egiten dioten begiraturia gainerakoek egiten dioten bezalakoa ala desberdina da? Kazetarien sektore gorenari onartzen zaion kokapen pribilegiatuak zer gertatzen den ulertzeko gaitasun handiagoa ematen ote dio? Ez da aiantzi behar profesionalen gehiengo zabal batentzat daukaten boterea lan egiten duten hedabideak zuzenean emana dela. Hedabideak izendatzen ditu kazetari, eta boterea ematen die kudea dezaten. Hala ere, mezuen sortze- eta banatze-prozesuan nolabait eragiteko ahalmena onartzen zaie. Informazioaren igorketatik harago, komunikabideen mezuek errepresentazioak sortzen eta birsortzen dituzte eragile eta faktore desberdinetatik. Horiek esaten baitute nortzuk diren aparteko gizabanakoak eta nortzuk arruntak. Ezin da aiantzi ere komunikabidean eta erakundean sozializazio-lan bat dagoela eta sozializazio-prozesu horrek nahi duela erakundearen mundu-ikuskerak eta kazetariaren nahas daitezen. Instituzioa, bada, gizabanakoaren gainean jartzen da. Horrela kazetariak independente izateko komunikabide baten menpeko izan behar du. Gainera kazetariak bere buruari eransten dizkion funtzioak aurkitzen ditugu. Horien artean nabarmentzen da zuzentzen diren gizartearen ispilu izatea. Gizartearen zerbitzariak besterik ez dira. Ez dira gizarte horren sortzaileak. Adierazpen-askatasuna bera prentsa- eta enpresa-askatasunaren menpean gelditzen da. Kazetariaren boterea, zilegitasun-iturri zabalak izan

arren, estrukturaliki mugatua dago. Urria bada ere, ez dugu ukatu behar haien balioak eta kokapen sozialak defendatzeko aukera badutela, gizonezko eta emakumezko, gizarte-klase edo gutxiengo nazional bateko kide diren aldetik. Iker-tzaileen arreta bi puntuk jasotzen dute alor honetan: lanbidearen osaketak, eta kazetarien lan-jardunaren eragina gizartean nolakoa den jakiteak, alegia. Ikerketa honetan lehenengo norabideari jarraitzen diogu. Ikerketa kontzeptuetan bezala metodologian nola garatu zuten agertzen digute ondotik. 50 enpresarekin jarri ziren harremanetan. Datu kuantitatiboak, konparatiboak eta kualitatiboak gurutzatu zituztela adierazten digute. Kazetarien batez besteko adina 32 urtera ez da ailegatzten. Gazteenen artean emakumezkoak gehiago dira. Kazetarien % 69 bizkaitarra da, % 15 gipuzkoarra eta % 16 arabarra. Komunikabide zaharrenetan dago batez besteko adinaren gaineko kazetari gehien. Emakume kopururik handiena Gipuzkoako herrialdean aurkitzen da. Emakumezko kazetariak gizonezkoek baino seme-alaba gutxiago dituzte. Gizonezkoen % 55 ezkondua da, emakumezkoen artean, aldiz, %35 baino ez. Kazetarien ama-hizkuntza honelakoa da: % 27,9 euskara, % 61,7 gaztelera, % 7,5 biak eta % 1,5 bestelakoa. Nazio-identitatea eta euskararen erabilera ere neurtzen dira. Irabaziei dagokienez, oso diru-sarrera txikiak dituzte gehienek. Emakumezkoek kazetaritzan ere gizonezkoek baino gutxiago irabazten dute. Kazetaritzako profesionalen artean % 30ek baino ez du kazetaritza lizentziatura. % 56k dio bokazioz heldu direla kazetaritza lanbidera. Informazio berezitua ekoiztea eta erreportaria izatea zituzten asmo nagusiak. % 61,7k euskal nazionalismoarekin identifikatzen du bere burua. % 74,6k ezkertiar-tzat jotzen du bere burua. % 53,81ek katolikotzat du bere burua. Oso lanbide indibidualista da. Lan honen hasieran hizpide izan den igorleen ikerketa-lerroaren egoera eta garrantziari dagokionez honakoa esan behar dugu: munduaren berri ematean, berriak ekoiztean eta ekoizpen-prozesu horretan hartzen dituzten erabakiak gizon eta emakume arrunten eguneroko bizitzan eragin handikoak bihurtzea direla.

“Ezagutzaren dinamikak eta kultura politikoak” artikuluan zientzia-politiken alboan, «zientziaren politika» eta «ezagutzaren dinamikak» nozioei arreta ipintzen zaie. Gaur egun, zientziari eta politikari elkarren beharra inoiz baino ageriagoa bilakatu zaie. Baina testuinguru berri honek ere ez du bitasunaren gainditzea ekarri. Zientzia-politiken aldaketa bat eman ahal izateko funtsezkoak dira zientziagintzaren elementu gisara ulertzea hala dinamika zientifikoak nola ezagutzaren politikak. Zientzia ezin dute erabaki politiko eta ekonomikoek baldintzatu. Baina, ezta oniritzi zientifiko eta teknologikoek gobernuen aukerak zein erabaki politikoak ere. Erabakia gobernariena izan arren, zientzilarien aholkuei jarraituko diete. Erabakiak irizpide zientifiko, autonomo eta objektibo batean oinarritu beharko dira, eta ez irizpide ekonomiko, selektibo eta pribatuan. Arriskua maila teknikoan bakarrik ulertzen da. Zientzia-politiken hastapenean emandako eztabaida nagusiak ere irtenbidea topa dezake. Bi aukera osagarri modura aldezteko okasioa genuke. Batetik, zientziak helburu sozialek zedarritua, hots, eredu sozialista; bestetik, zientzia eragin posibleetatik librea, hots, eredu liberala. Zona mestizoak proposatuko dira zientzia eta politikaren eremuei dagozkienak bereziturik, biak ere gurutzatuko dituen hirugarren eremu bat jaso nahirik. Hirurogeita hamarrek hamarkadan eztabaida berri bat sortzen da, zientziagintzan ere izaera desberdineko balioak lekutzen direla aitortuz, aditu eta aholkulari zientifikoek eremu politikoan jokatu beharreko rola eztabaida-iturri bilakatuz. Gobernariak argudio

zientifikoei ez ezik bestelako erreferentziei arreta ipiniz erabakiak hartzeko orduan. Ez dago proiektu zientifiko nahiz teknologikorik gizarteko eztabaidatik libre. Hau erabat urruntzen da egian eta ziurtasunean oinarritutako zientziaren irakurketa sozial batetik. Zientzia-politiken azterketak egiten ditugunean, ez genituzke ikerketa akademiko desberdinekin elikatutako joerak gutxietsi beharko, esaterako, zientziaren ekonomian, politikan, soziologian, filosofian. Zientziari loturiko gizarte-ikerketetan, harreman indiferentea izan dute diziplina horiek, normalean bakoitzak bere aldetik jo du. Zientzia-politiken azterketa zientziaren erabilera sozialera ixten duen irakurketak oniritzi epistemologiko eta sozial tradizionalak onartzeko arriskua du. Orobat, dinamika zientifikoa ulertzeko modu desberdinak daude. Joera dominantzaileak galdera ugari ditu erantzuteko. Horren aurrean, ugariak izaten ari dira azken urteetan zehaztapenak. Linealtasunaren kritikak, merkatuaren bitartekaritzak eta zientzia-politikara bildu diren fenomeno berrien identifikatzeak bitasunaren inguruko lehen eztabaida bat irekitzeko balio digute. Linealtasunaren kritika eta merkatuaren bitartekaritza batera biltzea lehen urrats bat da. Gainera, erabaki teoriko eta politikoa ere bada. Artikuluaren autoreak proposatzen duenez, ordea, hori bezain aproposa da zientziagintza bera ere ikertzea. Zientziagintzaren azterketak ondorio sendo bat aurreratzen digu: zientzialaria ez da eremu zientifikoaren subirano absolutua. Zientziak eta teknologiak bere aldetik funtzio ekintzailea izan dezakete. Bestalde, printzipio, balio eta oniritzi ugari ere parte hartzen dute berrikuntzaren antzeztokian. Horien artean aipa daitezke eduki kontzeptualak, logistika osoa, aliantzak eta sareak, herritargoaren epistemologia eta zientziaren kulturak, bai eta diziplinek zientzia-sistema jakin batean duten leku errekonozitua ere. Esan behar da ere zientzia eta teknologia ez daudela erabaki-esparruetatik at. Oro har, eremu politikotik libre kontsideratu izan diren zientzia eta teknologia gaur eztabaida politikoaren muinean kokatu dira. Merkatuaren bitartekaritza eta erabileren auzia gainditzten du ikerketa honek. Negoziazioak eta eraginak zientzian ere gogoeta-gai geratzen dira. Ez dezagun ahantz ezagutza beti dela kontsentsuzkoa. Adostasuna, ziurtasuna eta errugabetasuna jotzen dira eremu zientifikoaren ezaugarri behinenak. Zientzialaria ez da laborategira itxia, bere material, ezagutza eta trebeziekin kuriositateak bultzaturik aritua, eta denboran aurkikuntza baten iragarpena luzatzen diguna. Oro har, enpirismo logikoak ezarritako bitasunak, hala nola, egitatea/balioa, barneko/kanpoko historia, aurkikuntza/justifikazioaren testuingurua, bai eta ere objektibitate zientifikoaren oinarriak eta teoria zientifikoaren axiomatizazioa eztabaidatzeko daude. Zientzia eta politika ulertzeko moduak berak hausnartu beharra dakarkigu. Finantziatzora lerratu den irakurketari zientzia eta politika eremuen bitasuna berrikusten ari den ikerketalerroa erantsi behar baitzaio. Aholkularitza zientifikoa bera da ezbaian dagoena. Baina pentsatzekoa da, horren baitan, arazo erantsi bat dagoela: ezagutza zientifikoaren irudi tradizionala. Zientziaren kultura politikoak ere hor daudela ez dezagun ahantz. Zientzia-politiken hausnarketa ezagutza zientifikoaren soziologia politiko zabalagoan kokatu beharra dago. Kulturak gizartean atzeman daitezke. Proposatzen dena hau da: ikerketarako aldagaiak ez ixtea eremu zientifikora, eremu hau ez ulertzea soilik zientziaren kontzepzio tradizionalarekin, eta agentzien identitateak nahiz harremanak gurutzatzea. Garrantzitsua izango da ere zientzia- eta teknologia-politikak garatzeko debate publikoa eta elkarrizketa hobetuko duten neurriak hartzea. Berrikuntza sustatzea eta hor konpromiso publikoa kontsideratzea bateragarria da, modu integratu batean ulerturik, berrikuntzaz

gubernuek pentsatzen dutenarekin. Gure bizitzak testuinguru epistemiko batean dira, baina ezagutzaren lantzea, ekoiztea eta balioztatzea gure ekoizpen-egitura, sare instituzional eta kultura zientifikoaren araberakoa ere bada; bi planoen arteko trukatzeko zein ko/produkzioan objektibizatzen dira ezagutza, kultura eta bizitza soziala. Orain artean pentsaezinak ziren arazoak aurrean ipintzen gaitu egoera berriak. Larregizkoa da laborategira itxi, ezagutza zein errealitatea aztertzerako biltzea, eta kezka epistemologikoetan geratzea. Beste horrenbeste esan behar da, ordea, oniritzi horiek berak onartu eta kritika esku-sartze pribatura mugatzeaz ere.

“Euskarazko irakaskuntzaren erronkak egun” artikuluan euskarazko irakaskuntza normalizatzea oztokatzen duten egiturazko eta konbentzimeduzko arrazoiak azaltzen dira, eta aterabideak proposatzera ailegatzen da. Elbira Zipitriaren mendeurrenaren kariatara pedagogia ikuspegitik egindako gogoeta aurkezten da. Errepaso historiko labur batekin hasiera ematen zaio. Eusko Pizkundea gogorazten da, abiapuntua foralismoan izan zuela azpimarratuz. Irakaskuntzaren alorrera soilik mugatuz orotarazten zaigu, Moyano legearen (1876) ondotik, osoki erdalduntzeko prozesuari aurre egiteko xedearekin sortu zela mugimendua. Ekimen pribatuari esker gauzatu izan zela. Hainbat euskaltzalek han-hemenka hasitako mugimenduari jarraipena eman zioten Euzko Ikastola Batza izenarekin (1932-1936) Euzko Gaztedikoek eta Emakume Abertzale Batzakoek. Gerra aurreko irakaskuntza-eredu askotarikoaren baitan kokatu behar da Elbira Zipitriaren irakaskuntza. Erbestetik itzuli eta gero ere bigarren aldi batez berrituko zuen. Haren euskaltzaletasuna abertzaletasun militantean oinarritu behar da. Eta zertan gara gaur egun? 2005-06 ikasturteari so, Hegoaldeko eskualdeak eta Iparraldekoak sartuz, ikasleen %22,4 da bakarrik Batxilergoko Moduluak euskara hutsean egiten. Eta beste hainbat datu adierazgarri datoz. Curriculumak aztertzerako igaroz, lan-merkatuari egindako planteamendu politiko eta pedagogikoak nagusitzen direla ageri da. Irakaskuntza ezagutzen transmisio-ekintza gisa hartuta, gehienbat irizpide didaktikoak eta organizatiboak nagusitzen dira. Ondorioa hau litzateke: kalitatea berdin errentagarritasuna. Baina hezkuntzaren arazoa ezin da planteatu boterearekin eta hizkuntzarekin lotu gabe. Garai batean gehienbat euskaldun elebaker izatetik orain erdaldun elebaker izatera ez da gatazkarik gabe gertatutako prozesu inozo bat izan. Zailtasunak izendatzen hasi eta bi eratakoak bereizten dira: batzuk, egiturazkoak dira, beste batzuk, berriz, konbentzimendumailakoak. Boterea oinarritzeko tresna bat da euskal hezkuntza-sistema euskalduntzeko bidean. Euskal gizartea bere osotasunean euskalduntzeko ardura ezin da utzi hezkuntza formalaren eskuetan bakarrik. EHUko Irakasle Eskoletan 2003-2004 ikasturtean % 38,64 izan zen gaztelaniazko lerroan ikasketak amaitu zituztenen kopurua. Ikastetxe pribatuak, berriz, gehienbat irakasle erdaldunehornitzen dira oraino. Azkenik, gizarte-eragile eta eragile guztiek izan dezaketen borondate on eta egin ditzaketen ahalegin guztien gainera, ikasleak euskalduntzeko gai ez diren hizkuntza-ereduen ezina dago sakonean. Egiatzko murgiltze-metodotik kanpoko hizkuntza-ereduek ez baitute ikasleria euskalduntzeko gai direla frogatzen. Berreskuratu nahi den hizkuntza zutabetzat ez duen hezkuntza elebidunak ez du etorkizunik irakaskuntzan. Hizkuntza baten bizitzak ez baitu ziurtatuta bere etorkizuna gizartean erabiltzen ez bada. Hizkuntza gutxitu eta menderatuen estatus-normalizazioan agintzen duten legeak ez baitira literaturaren esparrukoak. Euskarak beharago du gai zientifiko guztiak duintasunez lantzeko trebatua ego-

tea. Euskarak bizi duen egoera istingatsuan, errudun bakarrak, ezta garrantzitsuenak ere, ez dira euskaldunak, erru gabeak ez badira ere. Euskal hiztunen azturak ez dira aldatuko nola ez diren euskalduntzen gizarte-mailako egitura nagusiak. Ezinbesteko baldintza da gizarteko egitura erdaldunduak euskalduntzea eta, horrekin, norberaren hizkuntza-portaerak eraldatzea. Euskararen aldeko erronkak ez bide du zentzurik klase gidariak ez badu sinesten euskal gizartearen berreuskalduntzean, eta horretarako bitarteko egingarriak ezarri.

“Europako Itun Konstituzionalak eskubide gabe utzi ditu hizkuntza-komunitate ugari” artikuluan Europar Batasuneko hizkuntza-eskubideak analizatzen dira. 125 hizkuntzatik gora erabiltzen direnean, horietarik 60 inguru berezko hizkuntza-komunitateei dagozkienak, Itun Konstituzionalak 21 hizkuntzari besterik ez die aitortzen konstituzio-hizkuntzaren izaera. Hizkuntza-aniztasun hori kudeatzeko lau eredu nagusi eskaintzen dira. Gau egungo Europar Batasunaren sorrera aitzin egondako itun garrantzitsuetan ere hizkuntza-politika aipatu izan da. Itun horiek zein hizkuntzatan idatzita egon, hizkuntza horretan instituzioetara zuzentzeko eskubidea bakarrik aitortu zaie herritarrei. Lurralde batean hizkuntza ofizial bat baino gehiago dagoenean, horietariko bat aldi berean beste estatu bateko hizkuntza ofiziala bada, beste hizkuntzak ez du ofizialtasunik izango Itun Konstituzionalean. Maltaren kasua da salbuespen bakarra gaurkoz. Egun 20 hizkuntza ofizial egotea segurtasun juridikoen publizitatearen printzipioek eragin dute. Bestalde Itun Konstituzionala arretaz aztertzen denean berehala jabetzen gara saihestu egin duela hizkuntza ofiziala terminoa erabiltzea bera. Batasunaren balioak aipatzean gutxiengo taldeko pertsonen eskubideak agertzen ditu, baina ez du zehazten gutxiengo terminoaren izaera. Ikuspegi kuantitatiboari lotutako definizioa da. Batasunaren helburuak aipatzean, berriz, hizkuntza-aniztasunaren errespetua seinalatzen da. Berritasun positibotzat eman genezake. Hala ere, aniztasunaren definiziorik ez dago eta beste behin, ondorioz, borondatearen mende geratuko da horren defentsa. Errespetatu hitza erabiltzean horrek ez du inolako ondorio juridikorik eragiten. Batasuneko herritartasuna aipatzean herritarrei hizkuntza erabiltzeko eskubidea aitortzen zaie, baina Konstituzioaren hizkuntzak erabiltzera mugatzen da. Oinarrizko eskubideak ere aitortzen dira. Sei ardatz nagusiren inguruan antolatu ditu Itunak. Hizkuntza eskubideen aipurik, ordea, ez da agertzen. Duintasuna bai, baina gabe bizi beharko du bere hizkuntza-eskubideak urratuta dituenak. Askatasuna bai, baina bere hizkuntza ukatuta duen pertsonari askatasuna faltako zaio. Berdintasuna bai, baina bereizkeria egingo zaio bere hizkuntza erabiltzeko traba jartzen zaion pertsonari. Kultura- eta erlijio-aniztasunari hizkuntza-aniztasuna erantsi zien Itun Konstituzionalak. Elkartasuna bai, baina elkartasun-ekintza sendoena hizkuntza gutxiagotuak normalizatzea litzateke. Herritar sentimendua, berriz, ez du inongo Itun Konstituzionalek emango. Administrazio ona edukitzeko eskubideak ere hizkuntza-komunitate gutxiagotuen onarpenetik pasatu behar du. Justiziaz ari denean ez dago inongo keinurik hizkuntzei so. Batasunaren politikak eta funtzionamenduak zehaztean berrikuntza negatibo handia ageri da; izan ere, hizkuntza dela eta gertatutako bereizkeriarik ez baitu kontsideratzen. Europar Batasunean etorkizunean gerta daitezkeen hizkuntzen arteko lehietan ez dira hizkuntza gutxituagoak sartuko. Kanpo baitaude jada. Jatorrizko testua eta itzulpena beharko dira itunean jasotzen diren eskubideak baliatzeko. Azken hilabeteotako aldaketen artean Moratinosen memoran-

duma da aipagarriena. Baina Europar Batasuneko 448. artikuluan euskara, katalana eta galiziera aurrez jasota ez zeudenez, antzua zen izaera ofiziala eskatzea. Kotsolamendu gisa diote euskara, katalana eta galiziera lehen aldiz Europar Batasuneko instituzioetan erabili zirela 2005eko azaroaren 16an. Baina, ba al dugu euskaraz mintzo den europarlamentariorik?

